

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Irakurketaren epizentroak” proiektua ostegun honetan jarriko da abian Nafarroako hamaika institututako 700 parte-hartzaile baino gehiagorekin

*Sare publikoko hamaika liburutegik epaimahaiaren lehen topaketa egingo dute, 2017an gazteleraz argitaratutako nobela onena hautatzeko*

Asteartea, 2018.eko abenduak 11

Ostegun honetan, abenduaren 13an, “[Irakurketaren epizentroak](#)” proiektuaren epaimahaiaren lehen topaketa egingo da. Hain zuzen ere, 700 pertsona baino gehiagoren artean erabakiko dute zein den 2017an gazteleraz argitaratutako nobela onena, hiru finalistetatik: “Una bala para el recuerdo”, Maite Carranzarena; “Lo del abuelo”, Anna Mansorena; eta “El Matarife”, Fernando Lalanarena.



Ostegunean burutuko da lehen saioa.

Epaimahaian, honako hauek hartzen dute parte: Nafarroako hamaika institututako ikasleek eta irakasleek (guztira, 677 pertsona); gazteen irakurketarako bi elkartek; eta, gutxienez, hogeitaz liburutegi publikok, irakurketako hogeita hamar bat klubetan banatuak, hogeitaz ikasleko taldeekin, talde bakoitzeko koordinatzaile batekin eta irakasle laguntzaile batekin.

“Irakurketaren epizentroak” proiektua Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak bultzatzen du, Liburutegien Zerbitzuaren bitartez, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean.

Lehen topaketa 18:00etan egingo da hamaika liburutegi publikoetan aldi berean: Nafarroako Liburutegia, Zizur Nagusia, Barañain, Burlata, Atarrabia, Txantrea, Civican, Yamaguchi, Iturrama, San Frantzisko eta San Jorge, eta beste talde batzuekin errepikatuko da abenduaren 20an.

Topaketen bigarren txanda otsailaren 14an eta 21ean egingo da, eta hirugarrena maiatzaren 2an eta 9an. Modu horretan, parte-hartzaile guztiek hiru nobela finalistak irakurtzeko eta komentatzeko aukera izango dute. Azkenik, ekainaren 12an, neska-mutiko guztiak bilduko dira “Irakurketaren epizentroak” sariaren 1. edizioan irabazlea suertatu den egilearekin.

Proiektuan honako herri hauetako institutuek hartzen dute parte:

Barañain, Basoko, Atarrabia, Julio Caro Baroja, Mendillorri, Zizur Nagusia, Burlata, Ochoa de Olza DBHI, Biurdana, Iturrama eta Martzilla. Proiektuaren helburua da bereziki irakurtzea sustatzea, baina baita ere ikasle gazteak liburutegietara hurbiltzea eta ikasketarako espazio ez ezik, bestelako praktika kulturaletarako espazio gisa ere bizitzea lortzea. Gainera, literatura-mailako epaimahaiaren bitartez, irakurketarekin modu ludikoagoan eta parte-hartzaileagoan erlazionatzen laguntzea da asmoa, eta, batez ere, irakurketako klubak dinamizatzeko zuzenean ezagutzea.

### **Tailerren eta irakurketa-klubak paper dinamizatzailea**

Irakurketa-arloko tailerrak eta klubak erreminta garrantzitsuak izatera iritsi dira biztanleriarengan oro har irakurketa-ohiturak finkatzeko; gainera, nerabezaroan erreminta horiek garrantzi handiagoa izan dezakete. Irakurketa jakin bati buruzko iritziak partekatzen diren taldean parte hartzean, komunikatzeko trebetasunak lantzeaz gain, elkarrizketa, enpatia edo asertibitatea bezalako balioak ere sustatzen dira.

Halaber, paper sozializatzaileaz gain, irakurketa-klubek pentsamendu kritikoa garatzen eta taldearen aniztasuna errespetatzen lagundu nahi dute.